

Pisto gotera eta Jon Jotilio

CHAPUZAS A DOMICILIO



AGURRA

Ez dago eskubiderik! Heldu gara azken orrialdera eta ez daukagu kopatxurik. Ez ei da komeni! Lan gehiegi egitea be ez da komeni, baina... Astoek baino behar gehiago egin eta gero ez dagoela saririk... Berriztarra bodegako tertulian batzen ziren filosofoetako batek esaten zuen modura: “¡Que trabajen los tontos!”.

Eta errefrauekin segituz, etxean entzuten genuena, “Sarna con gusto pica, pero no mortifica”, euskaraz gustuko bidian, aldaparik ez. Bada horixe bera, lan nekeza dela, baina gustukua. Eta horregaitik laugarren eta azken ale bat ateratzeko asmoa dugula eta oraingoan, ordukoan esan nahi genuen, zoriona izango dela izarra. Zoritxarra eta gero zoriona, eguraldi txarraren ondoren ona etortzen ohi den antzera. Kontuz, ez da metafora. Ezin da zorionari buruz idatzi tximista eta trumoi artean. Eguraldi onaren zain geratzen gara, beraz, eta ikusita aspaldian zelakoa sufritzen ari garen, hobeto duzue zuon diruak anorak eder batean gastatu. Bitartean asti gehiago/gehiegia izango dugu tontokeria gehiago/gehiegia idazteko.

Esan bezala ZORIONA izango da ildo nagusia, baina ez bakarra. Baina zer da zoriona? Filosofo eta jakintsu handienek ere ez dutenez bat egiten San Googlelengana jo behar izan dugu. Zoriona edo zoriontasuna pertsona batek bere barnean sentitzen duen poz, alaitasun, gozamen, lasaitasun eta maitasun-egoera da, sufrimendu eta asaldurarik gabea eta pertsonari betetasuna ematen diona. Beno, baliteke lekeitiarrok definizio horretan sartzea, batez ere, lasaitasunari dagokionez (Slow city, ahorita mismo). Eta alaiak be bagara, triste ez gaudenean, behintzat. Egiari zor, jai, zubi, akuedutu, bataio, jaunartze, ezkontza, despedida, kintada, opor eta abar batzen baditugu kalendarioa gorri-gorri geratzen da. Egun gorri (alai) horiek ekarri nahi ditugu hurrengo alean, amaitzear gauden honetan egun beltzak izan baitira nagusi.

Carpe diem latinez, fuego a la barraca espainolez. Ez dira faltako kantuak, dantzak, jaiak (Karnabalak, Sanantoliñak, Sanpedroak...), musika (banda eta estudiantina), tabernak, parrandak... Baina presa barik!

Gure Kurikek erpe egin barik altzoa berotu dizulakoan.